

E!Market



Sergio, Iván, Peio eta Danel gara proiektu honen egileak. "E!Market" izeneko supermerkatu online lokala sortzea erabaki dugu, bezero mota askori (lanpetuta dagoen jendea, arriskuan dagoen jendea Covid-aren egoerarekin, Erandio eta inguruko jendeari) zuzendutakoa. Erandion kokatua, Alzaga inguruan, auzo komertzial eta okupatua delako, non gure supermerkatuak etorkizuna izango duela uste dugu. Negozio hau garatzeko ideia izan genuen, produktu lokalen kontsumoa sustatzea oso garrantzitsua dela uste dugulako. Zerbitzu mota honek eskaera handia du gaurko egoerarekin eta jende lanpetuaren artean aukera handia izan daiteke Covid-aren egoera aprobetxatuz.